

EIBARREN EUSKARAZ BIZI NAHI DUT

Gaurkoan berriro elkartu gara, Eibarren ere Euskaraz Bizi nahi dugulako!

Etorkizunera begiratu eta Eibar euskalduna ikusi nahi dugu. Euskara denona dela adierazi nahi dugu, herritarrok gara euskara, eta eskuzabaltasunez jokatu behar dugu, euskarara hurbiltzeko bidean daudenak eskuzabalik hartuta.

Ikasi nahi dutenak animatu daitezela, euskara ikasiz asko dago irabazteko eta ezer gutxi galtzeko. Hor dauzkagu euskaltegi eta ikastetxeak; hazi-hezi-ikasi eta gozatzeko guneak.

Bestalde, badakigunok eredu izan behar dugu, guk erabiltzen ez badugu nekez eskatuko diegu ume eta ikasten dihardutenei eurek ere erabiltzeko. Gure arbasoek egin zuten moduan, geure euskera jaso, erabili, aldatu, transmititu, gorde, eta zabaldu egin behar dugu.

Eibarren euskara ikasi, gozatu, erabili eta ikertzeko aukerak baditugu, eta ez dezagun ahaztu adin guztiak direla onak horretarako . Ugari dira herriko elkarteek eta erakundeek eibartarron esku jartzen dituzten jarduera eta bitartekoak, euskaraz bizitzeko dugun nahia asetzen laguntzen digutenak.

Gainera, gaur egun, teknologia berrien aroan, euskara sareratu egin behar dugu, euskararentzako lekua egin eta aro berriarekin konektatzeko erronkari eutsi, hor ere egongo baita euskararen etorkizuna.

Baina Eibarren euskaraz bizitzeko gehiago behar dugu. Eta herritarrok instituzioei lan horretan bidelagun izatea eskatu nahi diegu. Instituzioen inplikazioa ezinbestekoa da, eurei ere badagokielako euskararen prestigioa eta estatua aldarrikatzea.

Honengatik guzti honengatik, Eibar euskalduna aldarrikatu nahi dugu, non euskaldunok zein euskarara hurbiltzen direnak elkarrekin bidea egingo dugun.